

Gasteizko langile mugimendua frankismo garaian. Berrikuspen historiografikoa

ARITZA SAENZ DEL CASTILLO VELASCO

**RESUMEN
LABURPENA
ABSTRACT**

En este trabajo se analizarán los pormenores del movimiento obrero de Vitoria-Gasteiz en la época del Franquismo, y especialmente los intentos de huelga acontecidos a mediados del siglo XX. Nos centraremos en la evolución de los diversos intentos de huelga de 1951, 1956 y 1958 para analizar en profundidad la responsabilidad y la participación de los distintos agentes sociales –trabajadores, iglesia, dirigentes del régimen dictatorial...– de Vitoria-Gasteiz.

Lan honetan frankismo garaiko Gasteizko langile mugimenduaren gorabeherak ikertuko dira, eta zehazki XX. mendearen erdialdean gertaturiko greba ahaleginak. 1951, 1956 eta 1958 urteko greba saiakera ezberdinen bilakaeran oinarrituko gara Gasteizko eragile sozial ezberdinen –langileak, eliza, erregimen diktatorialeko agintariak,...- ardura eta parte-hartzea era sakonean aztertzeko.

This work will analyse the details of the workers movement from Vitoria-Gasteiz during Franco's dictatorship and particularly the strike attempts that took place in the middle of the 20th century. We will focus on the evolution of the different strike attempts in 1951, 1956 and 1958 to analyse in depth the responsibility and the participation of the different social agents – workers, church, leaders of the dictatorship – in Vitoria-Gasteiz

**PALABRAS CLAVE
HITZ KLABEAK
KEY WORDS**

Movimiento obrero de Vitoria, huelgas de Vitoria, el Franquismo en Vitoria, oposición al Franquismo, Sindicato vertical.

Gasteizko langile mugimendua, Gasteizko grebak, Frankismoa Gasteizen, Frankismoarenganako oposizioa, Sindikatu bertikala.

Workers movement in Vitoria, Vitoria strikes, Franco's dictatorship in Vitoria, opposition to Franco's regime, Vertical trade union.

O hiko esaldi honekin historiografia tradizionalak beti azpimarratu du Gasteizko gizartearen izaera: “Gasteiz apaiz eta militarren hiria” (Lpz. de Juan Abad, J.M. et al., 1965; Rivera Blanco, A, 1992). Egia da gizartearen bi estamentu hauek hirian pisu handia dutela historian zehar, baina honelako egiaztapenek beste aktoreen jokaerak eta bizipenak estaltzen dituzte.

Hitz hauek hiri tradizional eta kontserbadore baten isla dira. Lopez de Juan Abad idatzi zuen bezala, Gasteiz 1950an XIX. mendeko hirien parekoa zela zioen, XIX. mendeko pertsonen osatuta baitzegoen. Deskribapen hau XX. mendeko hirurogeigarren hamarkada arte mantendu izan da ordu arteko gizartea azaltzerako orduan. Badirudi XX. mendearen erdialdean gauzak pixkanaka aldatzen joan zirela, Gasteiz industrializazioari loturiko modernizazio prozesu batean murgildu ostean. Industrializazio prozesu hau eredutzat hartu izan da, orekatua, tentsiorik gabekoa eta gizartearen partaide guztientzat onuragarria izan zela esanez.

Frankismo garaiko agintari ezberdinen adierazpenek kutxu berdina islatzen zuten. 1976ko grebetan arabar diputazioko lehendakariak, Lejarreta Allende, eta Jose Antonio Zarzalejos, Manuel Fragaren kontseilariak, Gasteizko gizartearen betiko irudi lasaitua eta tentsiorik gabekoa azpimarratzen zuten (Carnicero, C., 2007; Esk, 2001). Gasteizko “*desarrollismo*”-aren eredia orekatua bezala aurkeztu zuten, frankismoak bultzatutako politika ekonomikoaren ezaugarri ospetsuenetarikoa zela esanez. Populismo honen atzean zegoen “*triumfalismoak*” historiografia tradizionala baldintzatu zuen eta berrogeita hamargarren hamarkadako gizarte desorekak eta tentsioak ezkutatu zituen, “*vitorianismoaren*” armonian sakonduz.

Industrializazio prozesua gizarte harremanetan sortutako tentsioa langileen antolamendu eta mobilizazioan islatuko da (Babiano Mora, J., 1993; Molinero, C. e Ysas, P., 1998). Orain arte Gasteizko historiografiak ez du eremu hau aztertu frankismo garaian, eta argitalpen historiko berriak historiografia tradizionalak landutako diskurtsoan oinarritzen dira, XX. mendearen erdialdean Gasteizen langile mugimendu eza azpimarratuz (Gonzalez de Langarica, A., 2007). Langile mugimendua industrializazioarekin lotzen dute, industrializazio prozesuaren hastapenetan dagoen hiri batean ezinezkoa izanik. Gainera gerra zibilak eta lehenengo frankismoan zabalduko errepresioak edozein langile antolamendu tradizioa moztuko zuen. Hauen arabera, Gasteizko langile mugimendua hirian behin industrializazioa errota dagoenean sortuko da. Aurretik, Gasteizko langileria antolatzeke eta mobilizatzeko kultura eza azpimarratzen dute, langile mugimendua immigrazio prozesua ekarritako beste lan kulturekin lotzen dutelarik. Akulturazio honen ondorio logikoa 1976ko martxoak 3ko gertakariak izango dira (Guindal, M., 1976). Azken boladan determinismo estrukturalista eta kultural horiek zalantzan jartzen ari dira hainbat historia-lari aurrera eramaten ari diren ikerketetan.

1. SARRERA

Lan hau bide horretan murgilduko da, frankismo garaiko historiografia tradizionalaren hasierako berrikuspen bat planteatuko dugularik, langile mobilizazioak oinarritzat hartuta. Gasteizen eman ziren greba saiakera ezberdinen bitartez, langileen mobilizazioa eta antolamendu klandestinoak aztertuko dugu. Grebak estatu totalitario eta autoritario frankistaren kontroletik at antolatutako langile mugimenduaren isla puntualak dira, frankismoak lan mundua kontrolatzeko zuen erakundetik kanpo, sindikatu bertikala alegia, sortutako ekimenak izanik. Aldarrikapen tresna hau, greba, legediak debekatzeko zuen eta era gogorrean jazartua izaten zen, erregimen diktatorialaren aurkako manifestapen argia izanik; gainera, sistema frankistaren izaerak lan munduan ematen zen edozein motatako aldarrikapen, bai ekonomikoa, bai soziala, eraso politikoa izango balitz bezala ulertzen zuen (1). Horregatik ekimen hauek oso garrantzitsuak izan zirela deritzogu, nahiz eta batzuetan ez gorpuztu, Gasteiz buruzko historiografia tradizionalaren diskurtsoa kolokan jartzeko.

Azterketa deskriptiboa jorratuko dugu bereziki, analisi sakonago bat lan honen helburuak eta mugak gaudituko bailituzke. Tokiko historiografian hausnarketa edo gogoetarako tarte bat ireki nahi dugu, etorkizuneko ikerketen abiapuntua izan daitekeelarik. Berrikuspen hau historiako beste arlotara zabaldu beharko da frankismo garaiko Gasteizko historia hobeto ezagutzeko eta ulertzeko. Hainbat iturri erabili ditugu ikerketa honetan. Iturri idatziei dagokienez, hemerografiak eta dokumentalak erabili ditugu. Alde batetik Pensamiento Alavés egunkaria arakatu dugu, eta bestetik, Arabako Agiritegi Historiko Probintzian OSE (Organización Sindical Española) eta Lan Ministerioko Deleagaritza Probintzialaren fondoak aztertu ditugu (2).

Ahozko iturriak ere erabili ditugu ikerketa osatzeko. Carlos Abaitua Lazpita apaiza elkarrizketatu genuen, gertakarietan protagonista zuzena izan baitzen.

F. Lliberten liburuak, “Las huelgas contra Franco (1939-1956)”, ikerketa honen abiapuntua jarri zuen, 1951ko Gasteizko grebaren deskribapena egin baitzuen Solidaridad Obrera argitalpenaren informazioa oinarri hartuta. Santiago de Pablo gertari honetan murgildu zen eta ikerketan iturri anitz erabili ostean, 1951ko grebaren azterketa bikaina egin zuen. Bi lan hauek berrogeita hamargarren hamarkadako Gasteizko langile mugimenduaren existentziaren berri eman zuten. Gertakari hau aztertu ostean, Gasteizko langile mugimenduaren presentzia baieztatu behar genuen, gertakari isolatu bat ez zela jakiteko. Ikerketa kronologian zabaldu genuen beste mobilizazio adierazpenak

(1) Lan mundua arautzen zuen oinarritzko legeak, “*Fuero del Trabajo*”, grebak sedizio delitu bezala ulertzen zituen.

(2) Arabako Agiritegi Historiko Probintziala (AAHP), Lan Ministerioko Deleagaritza Probintzialaren saila, 76 kutxa.

aurkitzeko asmoz. Gure susmoak bere lorpena izan zuen, berrogeita hamargarren hamarkadan zehar langileen mobilizazioak errepikatu baitziren, 1956an eta 1958an alegia. Hurrengo lerroetan greba saiakerak hauek banan banan aztertuko ditugu.

1951 urtea garrantzitsua izan zen, espainiar estatuan zehar Franko erregimenaren aurkako mobilizazioak eta batez ere langileenak ugariak izan baitziren. Gerra zibilean Frente Popularreko alderdi politiko eta sindikatu ezberdinak debekatuak izan ziren, mugimendu nazionalistik at zeuden talde eta ekimen guztiak jazartuak izanik. Mugimendu nazionalak, hots erregimenaren erakundeak, ez ezik inork ezin zuen gizartea mobilizatu (Llibert, F. et al., 1978); edozein aldarrikapenaren inguruan antolatutako ekimena legeen kontra zihoan. Testuinguru honetan lan eta bizi baldintzaz eztabaidatzea eta mobilizatzea oso arriskutsua suertatu zen.

1951ko urtean erregimenaren aurkako lehenengo mobilizazio handiak Tranbietako grebak izan ziren, Bartzelonan arrakasta eta oihartzun handia izan zutenak. Garraio honen salneurrien igoera, oinarriko elikagaiak pairatutakoari gehitu zitzaion. Gizartearen hainbat sektoreen ekonomiak egoera larrian gelditu ziren, langileenak batez ere. Hauek garraio honen erabilerari uko egin zioten 48 orduetan zehar, igotera bertan behera utzi arte. Salneurrien jaitsiera eta aldarrikapen hauen ospea ikusita, mobilizazioa penintsulako beste herrialdeetara zabaldu zen. Apirilaren lehenengo astean Madrilen mobilizazioak eman ziren eta laster Euskal Herrira zabaldu ere. Azkoitian lehenengo grebak eman ziren apirilaren bian. Geroago Gipuzkoaldean eta Bizkaialdean 23 eta 24rako greba orokorreko deialdia egin zen, agintari frankistak “istilu sortzaile profesionalen” zurrumurruek zirela esanez. Probintzia hauetako langilegoaren %85ak greba jarraitu zuen, soldaten %50 igotzeko eskatuz (Llibert, F. et al., 1978).

Testuinguru honetan Gasteizko langileriak bere protagonismoa izan zuen. Mobilizazioak apirilaren amaieran hasi ziren. “Ajuria S.A”, “Aranguiz S.A.” eta “Hijos de Teodoro Aguirre” lantegietan paro edo geldialdiak aurrera eraman ziren, baina ekimen hauek (beso makurreko edo nahita egindako produkzio etenaldiak) ez ziren beste lantokietara zabaldu eta mobilizazioa ez zen kaleratu. Langile hauek soldata igotera handiagoa eta premiazko produktuen salneurrien kontrola areagotzea eskatzen zuten. Botere publikoen esku hartze eraginkorragoa bilatzen zuten premiazko elikagaien errazionamenduak oparotzeko izateko eta merkatuan elikagai hauen salneurriak jaisteko. Aldarrikapen hauek agerian utzi zuten estatu frankistaren politika sozialaren porrota, errazionamenduko kartilak eskaintzen zituen elikagai kopurua eskasa suertatzen baitzen eta maiz langileek merkatatura jo behar zuten gabezi hau gainontzeko.

2. 1951KO LANGILE MOBILIZAZIOAK

Lan ministerioko ordezkari probintziala, Laudelino León, langile hauekin harremanetan jarri zen eta beraien mobilizazioak bertan behera uztea konbentzitu zituen arazoari irtenbidea bilatuko zuela hitz eman ostean, tailer hauetan lan erritmo normalak bueltatuz. Martín Ballestero Arabako gobernadore zibila arrotzen zen bere probintzian langileen mobilizazioa erroto ez izana, “Arabako populazioa Franko jeneralari leialtasuna gordetzen baitzion” (Llibert, F. et al. 1978, p. 84, De Pablo, S., 1991, p. 78).

Dena den greba orokorraren zurrumurrua ez zen desagertu Gasteizko kaleetan. Maiatzaren 1ren ospakizuna zela eta, gobernu zibilak neurriak hartu zituen eta langilegoaren mobilizazioa etenda gelditu zen errepresioaren beldur. Greba zurrumurrua maiatzaren 4ean gorpuztu zen. Goizeko zortziak eta hamarrak bitartean, Gasteizko lantegi ugarietako langileek bere lanpostua laga zuten. Echaurren enpresako langileak aurrenekoak izan ziren lan geldialdia aurrera eramaten; hauek nahiz eta lanari ez ekin, lantegiaren barnean gelditu ziren, beraien lanpostuak laga gabe (3). Agintaritzak zibilak honetaz jabetzean indar errepresiboak bertaratu zituen langileak ateratzeko. Poliziaren indarkeria zela eta, langile matxinatuak lantegia utzi eta hirian zehar sakabanatu ziren. Langile hauek beste lantegietan sartu ziren, beraien egoera beste langileen aurrean azaltzeko eta greban zeudela jakinarazteko. Greba mugimenduak enpresetako esparrua gaindu zuen, mobilizazioak kaleratuz.

Arratsaldean hirian zehar lanuztea orokortu zen. Soldatapeko langilegoa zuten enpresa guztiek lan etendura hauek jasan zituzten, komertzio orokorraren, ostalaritza eta garraioen gremioen salbuespenarekin. Industrian greba jarraipen handia izan zuen, Heraclio Fournier, Bantu, Azucarera Alavesa, Fábrica de Purpurinas eta A. Bonillaren arotz tailerrak salbuespen bakarrak izanik.

Grebaren bilakaera ikusita, gauean Arabako agintaritzak zibilak irratiz mehatxuzko ohar bat zabaldu zuen, langileak ohiko ordutegietan lanera bueltatzeko gomendioz, bestela lan kontratuak apurtuak izango ziren. Mezua honako hau zioen: “...Nahiz eta igarotako apirilaren 25ean agintari zibilak greba zurrumurruren inguruan oharra argitaratu, gaur hainbat sektore industrialetan paro mugimenduak izan dira. Oraindik inportantzia gutxikoak dira, baina lantegi batzuetan lan erritmoak zapuztu dira, Araba eta Espainiako interesak izorratuz. Egoera hau bertan behera uzteko, legediak dituen arauak praktikan jarri aurretik, langileen erresponsabilitateari dei egiten dut, bihar goizeko zortzietan lanera bueltatzeko. Laneratzen ez diren langileak enpresatik kanporatuak izango dira, beraien kontratuak apurtuko direlarik...”. Honen aurrean hainbat langile hurrengo goizean laneratu ziren.

(3) Frankismo garaiko lan legeen arabera jokaera hauek langilea expedientatzeko nahiko ziren, baina ez ordea langilearen lan kontratua apurtzeko eta hau kaleratzeko. Echaurren langileek hau zekiten eta greba lantegiaren barruan jarraitu nahi zuten.

Maiatzaren 5ko arratsaldean berriz, greba areagotu zen industrian, eta komertziora zabaldu zen, bertako saltzaileek era orokorrean jarraitu zutelarik. Egun honetan Gasteizko langile populazioaren %60 eta 65 bitartean grebara atxikitu zen, lan ministerioaren ordezkari probintzialaren datuen arabera (langilegoa 9450 pertsonak osatzen zuten) (4).

Lan mobilizazioen oihartzuna ikusita, Lan delegaritzak ordainketa politikarekin langileen jokaera baldintzatu nahi izan zuen, greba bertan behera uzteko asmoz. Gasteizko industria eta merkatalgizon ezberdinekin kontaktuan jarri zen eta arauak eman zizkien asteko soldadak nola ordaindu behar zituzten ohartarazteko. Maiatzak bostean goizeko zortzietan laneratu ziren langileak bere lan kontratuen jarraipena ziurtatua izango zuten, baina galdutako orduen ordaina ez zuten jasoko; goizeko zortziak baino beranduago laneratu zirenei, lan kontratua apurtuko zitzaizen eta kaleratuak izango ziren. Enpresatik behinik behin aldenduta, zor zitzaizen dirua kobratuko zuten. Aurrerantzean beraien onarpena era indibidualean eskatu beharko zuten langile berriek jasotzen zituzten inprimakiak betez. Gobernu eta lan ministerioko agintariek beraien etorkizuna ebatziko zuten, azken hitza edukiz. Ebazpen hau langile bakoitzak greban izandako jokabidean oinarrituko zen, enpresa bakoitzak lan eta sindikatu bertikalaren delegaritzara bidalitako informeak aztertu ostean. Informe hauetan laneratu eta lana laga zuten langileen zerrendak agertzen ziren, egunetik egunera izandako bilakaera azpimarratuz. Zerrenda beltzak martxan zeuden.

Maiatzaren 5an arratsaldean, langilerik gabe edo gutxirekin zeuden tailer eta lantegiek, bere atek itxi (lock-out) eta ohiko langileen kontratuak bertan behera utziko zituzten. Agintaritza komunikatzean, langile berriak onartzeko aukera izango zuten. Itxi beharreko lantegiak, ahal zen neurrian, prezintuak izango ziren eta laneratu ez ziren langileen zerrenda delegaritzara bidaliko zen.

Astelehen goizean, Merkataritza eta Industria Ganbarak bilera bat antolatu zuen, non Gasteizko industria-gizon garrantzitsuenak bildu ziren. Agintaritza zibilak maiatzaren bostean emandako aginduen eraginkortasun eza salatu eta neurri hauek bertan behera uztea eskatu zuten – egun horretan laneratu ez ziren langileen kontratua ez apurtzea, hauen onarpena idatziz ez egitea eta lantegien itxiera galaraztea -. Lan ministerioko ordezkari probintzialak enpresarien eskaerak onartu zituen.

Lan kontratuen apurketa ez gauzatzean, arratsalderako greba bukatuko zela espero zen, baina ez zen horrela gertatu, nahiz eta grebari atxikitutako sektoreak era nabarmenean gutxitu ziren. Komertzioko saltzaileak greba bertan behera utzi eta lanera bueltatu ziren. Langile

(4) Arabako Agiritegi Historiko Probintziala (AAHP), Lan Ministerioko Delegaritza Probintzialaren saila, 76 kutxa.

industrial dezente ere lanera bueltatu ziren, baina oraindik hainbat lantegitako pertsonala greban zegoen (5). Eguerdiko hamabi eta ordu bat erditan bitartean, langileak laneratzeko ordutegian, gobernadore zibilak hartutako erabakia jarraika, Sindikatu Bertikalak (C.N.S.) eta Falangeko partaideek langileen artean zabaltzeko intentzior, hurrengo esku-paperak banatu zituzten:

“Las peticiones de nuevo ingreso no es necesario que se hagan por escrito y menos individualmente si es costumbre hacer el contrato verbal. Bastará que la empresa envíe una relación de todos aquellos obreros que admite hoy en sus factorías con el contrato anterior roto”.

Azken hitz hauek, lan kontratuaren apurketa, langileak izutu zituen eta laneratu beharrean grebara bueltatu ziren eta gainera, goizean barneratu egin ziren langileak grebara atxikitzea lortu zuten.

Maiatzak 7ko gauean (astelehena) agintaritza zibilak telefonoz Lan Ministroarekin hitz egin zuen eta bertan adostu zuten laneratu ez ziren langileei kontratua haustea eta langile nahiko ez zuten enpresen itxiera. Erabaki hau irratiz zabalduko zen populazioaren artean. Gobernadore zibilak hurrengo lantegien itxiera agindu zuen, bertako langileek greban jarraitzen baitzuten: “Hijos de Orbea S.C.”, “Pirotecnica Lecea”, “Tintorería Villanueva”, “Industrias Abaitua”, “Taller de José Aspiazu” eta “Rica S.A.”. Hurrengo egunean “Gran Fábrica de Tapices” eta “Casiano Amigo” arotz tailerrak agintaritzaren aginduak bete ostean itxiak izan ziren. Itxiera hauek, maiatzaren 10 (Hijos de Orbea, Pirotecnica Lecea, Tintorería Villanueva, Industrias Abaitua), 11 (Jesus Aspiazu, Rica S.A.) eta 14rarte (Gran Fábrica de Tapices, Taller de Casiano Amigo) iraun zuten.

Asteartean, maiatzak 8an, oraindik langile dezente enpresetako lan diziplinatik at zeuden. Goiz horretan langile anitz beraien lantegi-tara bertaratu ziren baina lan kontratuen apurketaz eta honek zekarren lan kontratu berrien izenpenaz jabetzean, iraiduta lantegitik ospa egin zuten. Dokumentu osagarrietan Gasteizko enpresa bakoitzeko langileak izandako jarrera aztertuko da, maiatzak 8 eta 9 bitartean (I). Maiatzak 10rako gauzak baretu ziren Gasteizko hainbat enpresatan lan erritmoak berreskuratu baitziren. Normaltasuna lan mundura irit-

(5) Sociedad Española y de Carburos Metálicos, Hijos de Orbea S.C., Pirotecnica Lecea, Industrias Quintana, Tintorería Villanueva, Manufacturas Mac-Diemar, Industrias Abaitua, Industrias Ali, Textil Alavesa, Santiago Fernandez, Decoración San Jose eta Jose Aspiazu langilerik gabe zeuden.

Madeasa, Viuda de Conrado R. de Ocenda, Ursino Sobron, Jorge Fernandez, Antonio Lopez, Felix Lascaray eta R. Manchola gutxiengo langilegoa zuten.

Enpresa hauetaz aparte beste enpresa handiago batzuk zeuden, arratsalde horretan bere langilegoaren zati bat lanean ez zutenak. Enpresa guzti hauei komeni zitzairen bere tailerretako atean iragarki bat jartzea, non jakinarazten zen laneratu ez ziren langileak defintiboki kaleratuak izango zirela.

si zen, aurreko enpresen salbuespena izan ezik, langilegoaren osotasuna lanera bueltatu zelarrik.

Greba honek eragin zuzenak izan zituen. Agintaritzak langileen mobilizazioak zigortzeko eta lan diziplina ezartzeko asmoz, maiatzaren 4 eta 8 bitartean greban aritutako langileen artean hainbat atxilotaketa burutu zituen, eranskinean (I) irakurri daiteken bezala. Sierras Alavesas, Carpinteria Castilla eta Ajuriako langileen artean, besteak beste, hainbat atxilotu ditugu (6).

Bestalde greban parte hartutako langileei lan egindako urteengatik jasotako soldata kendu zitzairen. Langileek orain arte bi, hiru, lau eta bost urtez enpresa berdinarekin zerbitzuepean lan egiteagatik irabazitako ordaina galdu zuten. Laudelino Leónen esanetan neurri hauek greba bultzatzaileei ez zien kalte egiten, langile gazte, esperientzia eta kualifikatu gabeak mobilizazioen sortzaileak izan baitziren (7). Are gehiago Lan Kontratu Legediaren 76. artikulua ezarpenak ordenari eta enpresari fidelak izan ziren langile beteranoei eragozpenak zekarzkien soilik, hauek grebako lehenengo orduetan ez baitziren atera, eta mehatxu eta presioaren ondorioz grebari atxikitu ziren.

Hasiera batean agintaritzak zibilak eta probintziako lan ordezkariak isun hauen bitartez lortutako diruarekin zer egin ez zekiten, baina Espainiako Lan ministroaren aginduak jarraika, langile ezberdinen Lan Mutualitateak eta Montepioak ordaintzeko erabili zen.

Azkenik autoritateen arteko koordinazio eza agerian gelditu zen. Probintziako lan ordezkariak grebei aurre egiteko lege zehatz baten beharra iradokitzen zuen, estatuaren sail edo erakunde ezberdinen parte hartzea eta eskumenak arautuko zuena. Ordu arte greben edo lan mobilizazioen aurrean probintziako lan ordezkariak jokaera ezberdinak izan zituzten, eta probintzia berdinarekin barnean agintaritzak zibila eta sindikatu bertikaleko ordezkari gorenarekin lehian ibili behar ziren konponbideak adosteko. Agintaritzak zibilaren esanetan, Gasteizko greban erakunde sindikalaren partaidetza arazo batean bilakatu zen langile mobilizazioei irtenbidea bilatzeko, falangismoaren populismoa zela eta. Aldi berean, gobernadore zibilak praktikan jarritako zigorrak probintziako lan ordezkariak enpresariekin adostutako neurriak ukatu zituen, greba luzatuz.

2.1 Dokumentu Osagarria (I)

GREBAREN EGUNEROKOA ENPRESA BAKOITZEAN ARABAKO LAN ORDEZKARITZAREN ARABERA (maiatzak 8 eta 9)

(6) Atxilotaketa, zalaketa eta epaiketa prozesuaren bilakaera Santiago de Pablo-ren lanak "El nacionalismo vasco en la posguerra. Alava 1939-1955" jorratzen du.

(7) Greba bultzatzaileen perfila honela azaltzen zuen: 14 eta 25 urte bitarteko langileak, gizonak eta emakumeak era berean parte hartuz; pintxeak, lanbide ikasleak, laneratu berri diren peoiak eta orain dela gutxi kualifikatu bilakatu diren langileak.

Eguna: Maiatzak 8

- Antonio Lopez: Langile batzuk aurkeztu ziren, baina kontratu berriak izenpetu gabe joan ziren, enpresak kontratatzeko baimena ez zeukalako.
- Echaury S.A.: Hasiera batean berrogei bat langile aurkeztu ziren, eta gero beste berrogeita hamar, guztira laurogeita hamar inguru. Enpresa Lan Delegaritzarekin telefonoz hitz egiten zegoen bitartean langile batzuk alde egin zuten. Geroago, guztira 50 langile lanean zeudela komunikatu zuten, hauek lan kontratu berrien izenpena onartu zutelarik.
- Ajuria: Plantilaren erdia laneratu zela kalkulaten zen. Enpresari onartu zitzaion langileen onarpenak arratsaldeko ordu bietatik aurrera martxan jartzeko. Lan kontratuak era idatzian egingo ziren eta plantila osatzen zenean, Delegaritza honetara kontratuak bidaliko zituen; hauetan era argian azaldu behar zen langileak sartu berriak edo maiatzaren bostean jada enpresaren parte ziren.
- Fábrica de Limas: Langileak gaur goizean lantegian aurkeztu ziren, baina kaleratuak izan zirela jakitean, alde egin zuten.
- Ariza: Guztira 34 langile dira. Gaur 16 langile lanean dihardute, langile eta administratiboak izanik. Hauek aurreko egunetan ere lanean ziharduten.
- Madeasa: Langile guztiak aurkeztu dira, baina kanporaketa edo despidoa jakinaraztean denek alde egin dute.
- Laza: Enpresak dio, gaur lanean dabiltzan langileak atzo ere lanean zeudela. Hau argi gelditu zen, atzo erakunde sindikalera bidalitako zerrendan (astelehena). Eskatu egin zaio dioen guztia egia dela frogatzea dokumentu bidez, datu hauek kontutan izanda irtenbideak bilatuko direlarik.
- Textil Vasco-Belga: Enpresaren ustetan, gaur langile guztiak aurkeztuko dira. Informatu zitzaion lan kontratu berriak adosteko inprimakiak prest edukitzea, agindua ematen zaionean langile berriak kontratatu ahal izateko, baina bitartean ez dezala inork kontratatu.
- Gamarra: Gaur 14 langile lanean ditu, pasaden egunetako kopuru berbera izanik.
- Marcelo Goicoechea (Karrozeria): Langile bat ere ez zen aurkeztu. Informatu zitzaion tailerra itxita uzteko agindu berriak bidali arte.
- Compañía de los Automóviles de Alava: Gaur goizean 36 langile aurkeztu ziren lan egiteko. Enpresari ohartu egin zaio, langileek lan kontratu berria izenpetu egin behar dutela. Enpresa, atzo gauean radiatutako oharraz ez zen jabetu, lan kontratu zaharrak bertan behera uzteko agindua eman zaiolarik. Hau dela eta, enpresak langileak laneratzea onartu zituen. Konprometitu egin zen, langileen jokaeraren berri jarriko zigula, ea hauek lana utzi duten kontratu berriak ez izenpetuz, ala hauek onartu egin dituzten zuzenean izenpetuz.

- Obras en Construcción: Enpresek pertsonala kontratatzeko beharra dute, baimenaren zain daudelarik.
- Angel Calvillo: Neska langileak ia osotasunean lanera aurkeztu ziren. Enpresak ez dauka eskumena neska langile hauek onartzeko; eta eskatzen digu arren lehen bai lehen kontratatzeko eskubidea luzatzeko.
- Automoviles de Alava: Enpresak eskumena dauka zahar edo berriak diren langileak onartzeko. Langile zahar guztiek barneratzeko eskaera indibidual berriak plazaratu zituzten, inprimaki berriak betez.
- Calzados Esteban: Langile guztiak aurkeztu ziren, 6 guztira. Denak ados daude lan kontratu berriak izenpetzeko. Enpresak eskatzen du hauek onartzeko eskumena.
- Textil Vasco- Belga: Langileak barneratzeko eskaerak edo kontratu berriak izenpetzen hasi dira. Enpresak eskatzen du lanera bueltatzeko baimena.

Eguna: Maiatzak 9

- Anitua: Aholkuak eskatzen ditu, langile guztiak lan diziplinara bueltatu baitira.
- Pedro Ugarte: Aholkuak eskatzen ditu, langile guztiek lan kontratu berriak izenpetu baitituzte, 22 langile izanik.
- Serapio Alberdi: Aholkuak eskatzen ditu, langile guztiek lan kontratu berriak onartu baitituzte.
- Armentia y Corres: 70 langileetatik 10 edo 12 aurkeztu dira. Gero informatu ziguten 39 langile lanera bueltatu zirela.
- Saenz Hermanos: 23 langile aurkeztu dira eta guztiek (23) lan kontratu berria izenpetu dute.
- Ochoa de Mendivil: Langile guztiak aurkeztu dira eta kontratu berriak izenpetu dituzte.
- Cortazar: Langile guztiak laneratu dira eta denek kontratu berriak izenpetu zituzten.
- Gran Fábrica de Tapices: Langileak aurkeztu dira baina enpresaren itxiera ohartarazi zaie.
- Casiano Amigo: Langile guztiak aurkeztu ziren. Enpresari agindu zaio enpresaren itxieraren berri emateko.
- Serrería Abendaño: Enpresak 4 langile ditu, hauetako 2 aurkeztuz eta berrezarpena eta lan kontratu berria izenpetuz.
- Bolumburu: Langile guztiak aurkeztu ziren (12), guztiak lan kontratu berriak izenpetuz.
- Luis Madinaveitia: Langile guztiek kontratu berria izenpetu zuten.
- Fabrica de Limas: Denak aurkeztu ziren. Langilegoaren onarpenaren berri aholkuak eman zitzaion, lan delegaritzara berriro deituko zuelarik.

- Mariano Marco y Vda. de N. Iriarte: Langile guztiek lan kontratu berriak izenpetu zituzten.
- Aranguiz: Goizeko zortzietan enpresak deitu zigun langile guztiak bertaratu zirela esateko. Enpresari langileak informatzea iradoki zitzaion, hauek idatziz eta indibidualki bere eskaera zuzendu egin behar zutela jakinaraziz. Neurri hauek onartzen zituzten langileek laneratuak izango ziren beraien ohiko lanpostuetan, lan eskaera indibidualak izenpetu ostean. Dena egin zen langile topaketa handiak eragozteko intentzioarekin eta hauek beraien artean eztabaidatzeko aukerarik ez izateko eta iritzi aldaketak eta desbertzioak ez emateko.
- Talleres Yoldi: Langile guztiek lan kontratu berria izenpetu zuten.
- Apellaniz: Langile guztiek izenpetu zuten. 3 langile falta dira.
- Areitio S.L.: 85 langileek izenpetu zuten.
- Teodoro Aguirre: Langile guztiek izenpetu zuten.
- Leoncio Ruiz: 14 langile izenpetu zuten, 3 izenpetu gabe geldituz.
- Muebles Zarate: Langile guztiak aurkeztu ziren.
- Industrias Ali: Aholkuak eskatzen ditu. Enpresara sartzeko ordutegian, goizeko bederatzietan, langile guztiek lan kontratu berriak izenpetu zituzten.
- Camas Astaburuaga: Astelehenetik lanean daude.
- Eufemia Perez: Enpresak dituen 10 langileak aurkeztu dira. Enpresari aholkuak plazaratu zaizkio.
- Sanchiz Bueno: Langile guztiak aurkeztu dira. Enpresak lan delegaritzara deitu egingo du.
- Behamonde: Langile guztiek lan kontratu berria izenpetu zuten, 36 langile zirelarik.
- Mosaicos La Moderna: Langile guztiek lan kontratu berria izenpetu zuten.
- Talleres Celta: Langile guztiek lan kontratu berria izenpetu zuten.
- Juan Alonso: Ohi bezala, lanean dihardute, normal normal.
- Marin y Goicolea: Dituen 6 langileetatik 5 aurkeztu dira. Enpresari aholkuak eman zaizkio.
- Construcciones Balujera: Atzo arratsalde geroztik lanean daude.
- Narciso Gonzalez: Atzo arratsaldetik lanean daude.
- Macazaga: Atzo arratsaldetik lanean daude.
- Praxedes Ochoa: Arratsaldean lan egiteko autorizatu zaio, langileek berrezartzeko eskaera izenpetu baitute.
- Jorge Fernandez: Atzo arratsaldetik lanean daude.
- Diez Arsenio: Atzo arratsaldetik lanean daude.
- Gabino Cuevas: 6 langileetatik 4 izenpetu dute; 2 langile gaixorik daude, greba hasi baino lehen egoera berebetean zeudelarik.
- Construcciones Uriarte: Atzo arratsaldetik lanean daude.

- Uralde: Atzo arratsaldetik lanean daude.
- Clementino Gomez de Segura: Atzo arratsaldean lanari ekin zioten.
- Juan Gomez de Segura: Atzo arratsaldean lanari ekin zioten.
- Vda. de Saracibar: Lau langile lan kontratu berria izenpetu zuten.
- Garage Bilbao: Langile denek lan kontratu berria izenpetu zuten. Eguerdiko ordu bietan sartu daitezela.
- Berriozabal y Abecia: Langile guztiak izenpetu zuten (8).
- Calzados Esteban: Langile guztiak izenpetu zuten (6).
- Garage Omnia: Greban egondako 4 langileek lan kontratu berria izenpetu zuten. Hauek arratsaldeko turnorako onartuak izango dira.
- Ibargoitia: Grebara ez ziren joan.
- Sierras Alavesas: Langile guztiak lan kontratu berria izenpetu zuten, langile atxilotu bat izan ezik.
- Carpinteria Castilla: Langile guztiak izenpetu zuten, 6 langile atxilotu izan ezin.
- Industrias Arrieta: Enpresa honek langile batzuk lanean zituen. Greba egin zuten langileek, gaur kontratu berriak izenpetu dituzte.
- Ajuria S.A.: Normaltasun osoa. Derrigortuta zeuden langile guztiak izenpetu zuten, hots, astelehenetik aurrera laneratu zirenak. 30 langile falta dira, enpresaren ustetan, batzuk atxilotuak eta beste batzuk gaixoak egonez.
- Gamarra S.L.: Langile guztiak lan kontratu berria izenpetu zuten.
- Echaury S.A.: Langile guztiak izenpetu zuten.
- Industrias Ilma: Soilik astelehenean arratsaldean grebara joan ziren, behartuta edo koakzionatuta. Grebako beste egunetan normaltasunez lan egin dute.
- Fundicion Echevarria: Astelehenetik normaltasun osoz lan egin dute.
- Ariza S.A.: Langile guztiak lan kontratu berria izenpetu zuten. Arratsaldean lan egiteko autorizatuak daude. Astelehenean normaltasunez lan egin zuten.
- Antonio Lopez. Fca. Sillas: Atzo arratsaldetik normaltasunez lan egin dute, aurretik langileek berrezartzeko eskaera egin zutelarik.
- Larramendi: Grebako egun guztietan normaltasuna izan da nagusi.
- Vda. de Eguinoa: 11 langileek ez dute izenpetu egin nahi eta enpresari ohartu zaio langile hauek kaleratzeko eta delegaritzaren aginduen zain gelditzeko. Geroago enpresari idatzi bat bidali zitzaion. Autorizatzen zitzaion arratsaldetik aurrera bere tailerreko ateetan iragarkiak jartzeko langile berriak kontratatzeko asmoarekin, berriak nahiz enpresa honetako langile ohiak izanik.
- Industrias Mendoza: Langile guztiak aurkeztu ziren eta lan eskaera berriak izenpetu zituzten.
- Sermando Gonzalez: Langileak onartzeko arauak ez zituen ezagutzen. Gaur goizean plantilako langile guztiak aurkeztu dira eta enpre-

sak onartu ditu. Enpresari ohartu zitzaion, langileek lan kontratu berriak edo berrezartzeko eskaera izenpetu behar zituztela, eta ez egitekotan, arratsaldean laneratzea eragozte.

- Mtz. Gordejuela: 2 langile kenduta, beste guztiek larunbateko arratsaldetik aurrera lanean dihardute. Enpresari ohartzen zaio, langile hauek laneratu aurretik derrigortuak izan behar direla eskaera berria izenpetzeko.
- Ormi: Grebara joan ez ziren langileak ditu. Enpresa informatuta dago, grebara joan ziren langileek eskaera bete behar dutela laneratu aurretik, eta ez badute egiten ezin izango direla laneratu.
- Sanchiz Bueno: Grebara joan ziren langile guztiak laneratu dira, berrezartzeko eskariak izenpetuz.

Oharra: Beste enpresa askori informatu zitzaion langileek lan eskaerak bete egin behar zituztela laneratu aurretik, eta gero delegaritzara baimena eskatu lana hasteko.

3. 1956KO LANGILE MOBILIZAZIOAK

1956ko langileen mobilizazioak bost urte lehenago eman ziren mobilizazioen antzekoak izan ziren, morfologia berbera errepikatu baitzen. Kontutan izan behar dugun lehenengo gauza, 1951ean bezala, Arabak Nafarroa, Gipuzkoa eta Bizkaiarekin duen harremana eta probintzia hauen gertutasuna, eta aldi berean probintzia hauetan gertaturiko langile mobilizazioak. Probintzia hauen industrietan lanuzte ezberdinak pairatu zituzten apirileko lehenengo astean, Iruñean eta Gipuzkoako hainbat herrietan batez ere (Llibert, F., 1978, p. 86, 228). Langile mobilizazio hauen oihartzuna Gasteizera iritsi zen eta Arabako hiriburuan greba emango zelaren zurrumurrua jende artean zabaldu zen apirilak 9tik aurrera. Bizitza publikoko esparruetan –tabernak, kafetegiak, pasealekuak- eta lan tokietan, probintzia haue-tako gertakariak era nabarmenean eztabaidatu ziren eta Arabako langileak egun batean edo bestean greban jarriko zirela pentsatzen zen. Apirilaren 16an greba orokorra aurrera eramango zela onartzen zen, esamesek geldialdiak zein enpresatan hasiko ziren argi adierazten zutelarik.

Grebaren arrazoiak, berriro ere, langileen arazo ekonomikoetan oinarritzen ziren (8). Mobilizazioak bizitzaren eskasia eta prezioen igoeraren aurrean protestatzeko eta inguruko probintzietako langile mugimenduei elkartasuna erakusteko antolatu ziren. Gobernuak zuzendutako soldaten igoerak ez zuen langileen bizi baldintzak asko hobetu, igoera hori inflazioa eta bizitzaren kosteak jasandako igoerarekin neutralizatua gelditzen baitzen; gainera, salneurrien igoera

(8) Aurreneko lau urteetan soldadak ez zuten inolako aldaketarik edo igoerarik jasan (Llibert, F., 1978, p. 228).

nabarmenenak premiazko produktuetan eman ziren, hots, haragi, patata, barazki eta antzeko produktuetan. Apirilean gobernuak dekretu bidez eta era ofizialean ezarritako soldaten igoerak, langileek ordu arte jasotzen zuten bizitza karestiako plusa zurgatzen zuela adierazi zen, soldaten igoera erreala ezerezean geldituz. Areitio, D.K.W. eta Aranzabaleko “bitartekari sindikalek” (9) horixe bera salatu zuten sindikatu bertikalako delegaritzaren probintzian. Honen aurrean, Arturo Cebrian probintziako sindikatu bertikalaren agintari gorenak, oinarritzko soldaten igoerak ezin zuela enpresak ordu arte ordaintzen zituen plusak zurgatu gogoratu zuen (10).

Apirilaren 14ean, larunbata, Gasteizko industria ezberdinetan zegoen giroaz kezkatutik probintziako agintari ezberdinak bildu ziren (11) – gobernadore zibila eta militarra, Gasteizko alkatea, sindikatu bertikalako ordezkari probintziala, Gasteizko guardia zibileko teniente koronela, Gasteizko polizia komisarioa, probintziako hornikuntza ordezkaria eta lan ministeritzako ordezkari probintziala-, greba orokorra zapuzteko ze irtenbide bilatuko zuten eztabaidatzeko. 1951ko greba oraindik oroimenean zegoen. Bi ildo nagusi aurkeztu ziren. Batetik guardia zibileko agintari gorenak sindikatu bertikalaren barnean greba bultzatzen zuten ordezkariekin bildu eta negoziaketak ireki behar zirela zioen. Negoziaketa hauek ez bazuten inolako emaitzarik ematen eta grebari irtenbidea ez bazitzaion bilatzen, bertikalako ordezkariak atxilotuak izango ziren; bestalde, lan ministerioko ordezkari probintzialaren iritzia zegoen, guardia zibilaren proposamena bertan behera uzten zuena, hark iradoki zuen irtenbideak sindikatu bertikalaren funtzionamendua errespetatzen ez zuelako. Langileekin negoziaketa zuzena arriskutsua suertatzen zen, grebaren mehatxuaz baliatuko baitziren beraien aldarrikapenak defendatzeko, azkenean greba ezinbestekoa suertatuz.

Agintari guztiak langile mobilizazioak nahitaez emango zirela ziur zeuden. Testuinguru honetan, greba era egokienean kudeatzeko ze neurri hartu behar ziren eztabaidatu zen. Bi irtenbide posible pentsatu ziren: alde batetik indar errepresiboak industrietara bertaratu eta greban zeuden langileak lantegietatik kanporatu edo greban zeuden langileak enpresaren barnean utzi beraiek ateratzeko intentzioa eduki arte. Bilkura honetan langileak greba egin orduko ez kanporatzea onartu zen, lan ordutegia bukatu ondoren eta langileak lantegiak lagatzean neurriak hartuko zirelarik. 1951ean Echaurreko langileen utzaraz-

(9) Komatxoak erabili ditugu bitartekari sindikalen izaera antidemokratikoa azpimarratzeko, langile ordezkari hiru sindikatu bertikalaren tresna baitzen eta erakunde honen eraginpean baitzegoen, nahiz eta erregimenaren oposizioko indarrek erabili protesta bideratzeko.

(10) 1956ko apirilak 13an Pensamiento Alavés-en argitaratua.

(11) Egun horretan bertan Anitua eta Gamarra lantegietako langileek lan geldialdiak aurrera eramane zituzten.

teak ekarri zituen ondorioak erabakigarriak izan ziren azken proposamena indarrean ateratzeko.

Hau gutxi ez balitz, agintariak beste arazo batekin topatu ziren futbola tartean sartu zelarik. Igandean Deportivo Alavés eta Atlético de Bilbao taldeen artean jokatu behar zen norgehiagoka arbitroak bertan behera utzi zuen, futbol zelaia jendez gainezka baitzegoen eta astelehen 16an arratsaldeko bostetan emango zela agindu zuen. Data hau zurrumurruak greba hasiko zen egunarekin bat zetorren. Langileek lana lagatzeko inolako aitzakirik ez edukitzeko, probintziako lan ordezkariek Gasteizko enpresa guztiei lauretan langileak lana bukatzeko aukera edukitzea erregu zien. Neurri honekin greba hasteko justifikapen garrantzitsu bat deuseztatzen zen.

Azkenean, zurrumurruek arabera, greba gauzatu behar zen eguna heldu zen. Apirilak 16tik 22ra doan asteen, Nafarroako, Gipuzkoa eta Bizkaiko zonalde industrialean greba mugimenduak puntu gorenean zeuden, bertako agintari zibilek hainbat lantegi itxi zituztelarik (12). Aste honetan Gasteizen langile mobilizazioak ere eman ziren, Aranzabal eta Echaurren industria metalurgikoetan lana bertan behera uzteko hainbat saiakerak eman baitziren, baina geldialdi hauek ez zuten ospea izan orokortu ez zirelako. Hirian zehar greba orokorraren mehatxua zabaltzen hasi zen eta egunero enpresa ezberdinetan lan uzteak ematen ari zirela errepikatu zen. Hau ikusirik, probintziako lan ordezkariek gorenak hainbat enpresatan zuen konfiantzazko langile salariari sarea martxan jarri zuen. Hauen iritziz langileen artean grebara joateko asmorik ez zegoen, baina mobilizazioetara erakartzeko testuinguru egokia prestatzen hasia zen.

Apirilaren 25ean lehenengo greba saiakerak eman ziren. Aranzabal enpresako 112 langile eguerdiko ordu bi eta erdietan lana laga zuten. Arratsaldean, Antonio Rueda probintziako agintaritzak zibilak lanuztea burutu zuten langileen kontratuen apurketa agindu zuen eta enpresari lan kontratu berriak adosteko baimena eman zion (13).

Hurrengo egunean beste zortzi enpresako langileak grebara batu ziren. Goizean Industrias Arrieta eta Echaurren langileek lan mobilizazioak aurrera eramane zituzten. Lehenengo lantegian 70 emakume langile eta 16 gizonezko lana utzi zuten, soilik administrazio saileko pertsonala eta pare bat enkargatu lanean geldituz; produkzioan eraba-

(12) Pensamiento Alaves-en berrien arabera apirilaren 17an Iruñako langileen egoera baretu eta normaltasunera heldu zen. Apirilaren 24, 25 eta 26 Bizkaiko langile mobilizazioei buruz informazioa dakar, greban jarritako langileen kaleratzea eta lan kontratuen apurketa azpimarratzen duelarik. 24ean Balcok Wilcox, General Eléctrica eta Sociedad Española de Construcción Naval lantegiak itxiak izan ziren agintaritzak zibilaren oharrak jarraituz; 25an Santa Agueda, Industrias Aguirena, Astilleros Ruiz de Velasco, Talleres Erandio, Azo, eta Bizkaiko Labe Garaietako hainbat sail itxi ziren; 26an Aurrera, Seida, Oberena, Talleres de Lamiaco, Astilleros del Cadagua eta Talleres Ortuella itxiera jasan zuten.

(13) Agindu hau bai irratiz, bai egunkarien bitartez zabaldu zen. Apirilak 26an Pensamiento Alavés-ek agintaritzak zibilaren berriei eskeintzen dion atalean argitaratu zen.

teko etendura eman zen. Echauring hamar eta erdietan 62 langile lana laga zuten, aldi honetan enplegatu edo “alkandora zuriko langileak” ere parte hartuz. Industria honetako enkargatuak eta lan talde ezberdinetako nagusiak edo zuzendariak (*jefes de equipo*) kenduta, hierarkia produktiboaren beste lanpostuetako langileek greban parte hartu zuten (14). Geldialdiak industrian ez ezik, ekonomiaren beste sektoreetan eman ziren. Echevarria eta Sillauren eraikuntza enpresako 15 langileetatik 10 lana bertan behera utzi zuten.

Arratsaldean greba mugimendua zabaldu zen eta Gasteizko beste industrietako langileek geldialdiak burutu zituzten. Echauringo 23 langile grebara gehitu ziren, guztira 85 langile greban egonik. Arratsaldeko ordu bietan Industrias Gairuko (15) 43 langileetatik 42 lagun kalera atera ziren; ordu berebean, Industrias Betoño metalurgika lantegiko 77 langile lana laga zuten. Ordu erdi beranduago Areitioko langileak lantegitik ateratzen hasi eta 250 langileetatik 5 bakarrik lanean gelditu ziren. Industria honen barnean oihal produktzioa 70 emakumeek, geroago Cincor enpresaren partaide izango zirenak, greba ez zuten jarraitu. Bestalde Hofesako langile guztiak - Areitioko filiala - grebara batu ziren.

Industria hauetan langile mobilizazioak eduki zuen oihartzuna ikusirik, Antonio Rueda gobernadore zibilak aurreko lantegien itxiera agindu zuen - Arrieta, Gairu eta Hofesa - (16). Bestalde greba jarraitu zuten langileen lan diziplina hutsegiteak, lan kontratuen apurketa eta lan eskubideen urraketa sortarazi zuten.

Dena den, nahiz eta agintari zibilak neurri hauekin greba mugimendua moztu nahi izan zuen, langileen lanuzteak ez ziren bukatu. Apirilaren 27an goizean Latierro Hermanos industriako 26 langile lana utzi eta grebara batu ziren, arratsaldean agintaritzak zibilak irtenbide berdina -lantegiaren itxiera- ezarri zuen; Talleres Urimako bost langile ere grebara gehitu ziren. Aranzabalen ere langile mobilizazioak areagotu ziren. Goizeko txandako langile guztiek lau lankideen atxilotetaz jabetu ostean, elkertasun erakustaldian eta autoritateen neurri errepresiboak salatzeke, lanpostua utzi zuten; gainera, greban zeuden lankideek Florida parkean - langile anitzen lanerako igarobidean, batez ere Areitio, Aranzabal eta Ajuria industrietako langileentzat - atxiloteta hauen berri eman zuten gainerako langileei, beraien solidaritatea bilatzeko asmoz eta bai lortu ere, enpresa honetan grebari atxikitutako langileak 179ra igo baitziren. Echauringo langile berberak greban jarraitzen zuten.

(14) Administratibo bat, lehenengo kategoriako 6 ofizial, 5 bigarren kategoriakoak eta 15 hirugarren kategoriakoak, gizonezko 15 espezialista eta 10 emakume, 7 peoi eta 4 ogibidetako ikasle grebara atxikitu ziren.

(15) Nekazal tresnerian espezializatutako industria zen.

(16) Apirilak 27ko Pensamiento Alavés-en argitaratua.

Areition greban jarritako hainbat langile lanera bueltatu ziren, baina arratsaldean nomina izenpetu behar zutenean, 195 langile izenpenari uko egin eta grebara bueltatu ziren, soilik 11 produkzioko langile eta 27 enplegatu lanean geldituz.

Atzo greba jarraitu zuten Industrias Betoñoko langile batzuk lantegira bertaratu ziren lana egiteko helburuarekin, baina enpresak agintari zibilaren aginduak jarraika, beraien kaleratzea ohartu zien.

Apirilaren 28an Prudentzio Deunaren eguna ospatu zen, probintzia osoan jai eguna izanik. Hala eta guztiz ere, greba orokorraren zurrumurruak ez ziren desagertu hilaren 30rako langile mobilizazio deialdiaz hitz egiten baitzen. Astelehena 30 heldu eta geldialdi orokorra izan beharrean, aurreneko egunetan greban egon ziren langileen gehiengoa lanera bueltatu zen. Horrela, maiatzaren 2an greban egondako azken langileak laneratu ziren eta normaltasuna Gasteizko enpresa guztietan berrezarri zen.

Laudelino León lan ordezkari probintzialaren arabera grebara atxikitutako langilego osoa ez zen 600 pertsonetatik pasa. Lan mobilizazioak Araban porrot egin zuela adierazi zuen eta grebara joan ziren langileek isunak pairatu zituzten. Aranzabal, Echaury, Areitio, Industrias Betoño, Industrias Arrieta, Industrias Gairu, Home Fitting, Echevarria y Silaurren, Latierro Hermanos eta Talleres Urimariko langileak kaltetuenak izan ziren “ekonomia nazionalari (...) aberriari eta beraien familiei eragindako kalteengatik”. 1951ko greban bezala, lan urteen truke jasotzen zuten diru ordaina galdu zuten eta abenduaren azken egunetara arte ez zuten berreskuratu. Estatu frankistak bere izaera paternalistaren erakustaldian, gabonak zirela eta, “matxinadaren bultzatzaileekin bat egin zuten langile inozo eta ez jakitunen” aurrean errukia erakutsi zuen. Estatu buruak, behin ministro bilkura- ren oharra entzunda, langile hauen “antiguete sariak” berrezarri zituen, gabonetako ordainetan nabaritzen hasiko zelarik (17).

4. 1958KO LANGLE MOBILIZAZIOAK

1958ko Gasteizko langile mobilizazioetan bi ezaugarri berezi azpimarratu behar dira: eligizon eta HOAC erakundearen eta enpresa siderometalurgikoko bitartekari sindikalen parte hartzea. Martxoko lehenengo asteetan langile mobilizazioen zurrumurruak Gasteizen era argian azaldu ziren, Asturiaseko meatzariak greba mugimendua aurrera atera ostean. Aurreko lerroetan deskribatutako gertakarien antzera, aste hauetan greba zurrumurruak etengabe zabaltzen hasi ziren, ze enpresetan eta ze egunean emango ziren zehaztuz; Gipuzkoako hainbat herrietan eta Bartzelonan hasitako grebek esamesak arindu zituzten. Probintziako lan ordezkaria bere konfiantzazko langile salararie-

(17) Espainako lan zuzendari orokorra, Arabako lan delegaritzara bidalitako gutunak, 1956ko abenduaren 24 eta 29an.

kin harremanetan jarri zen, grebaren mehatxua noraino egia zen jakiteko. Hauen arabera Gasteizko langileen artean grebaren aldeko jarraera ez zegoen errotuta.

Bitartean HOAC erakundeko langileen eta hainbat enpresetako bitartekari sindikalen arteko bilkurak ematen hasi ziren, sindikatu bertikalaren egoitza kanpo, honen kontrola saihestu nahian. Ostiralean, martxoak 28an, enpresa siderometalurgiko ezbedinetako bitartekari sindikalek “Hogar Alavés”-en bilera bat antolatu zuten, langileen aldarrikapenak eztabaidatzeko¹⁸. Carlos Abaituaren zuzendaritzapean Elizbarrutiko Idazkaritza Soziala aspaldi langileen bizi baldintza eta egoera materialez arduratzen zen. Langileen soldata oinarri izanik, 1958ko hasierako hilabetetan azterketa ekonomiko sakona burutu zuten Gasteizko industria ezberdinetan, lan ordaina langile senideen aurrekontu ekonomikoetara egokitzeko asmoa izan zutelarik (19).

Hogar Alaves-en larunbat arratsaldean bilera berri bat antolatu zen langile gehiago bildu zirelarik. Hau denboran luzatu ostean, elkartutako langileak hurrengo egunerako gelditu ziren. Apaiz Etxe, edo “ariketa espiritual-etarako etxean” (Casa Sacerdotal) berriz aurkituko ziren, Carlos Abaitua bertaratuko zelarik (20). Soldata igoeraren aldarrikapenak nola bideratu eztabaidaren ildo nagusia izan zen. Bi iritzi kontrajarri indarrean zeuden. Alde batetik Carlos Abaitua eta bere jarraitzaileek bultzatzen zutena, enpresako antolamenduak zituen bide legalak erabiltzeko prest zeudenak; bestetik, elizgizonen eta bere erakundeetatik at zegoen langile taldea, greba irtenbide bezala iradokitzen zuena.

Bi talde hauek igande arratsaldean berriro bildu ziren posizioak gerturatzeko. Aita Uriarteren babespean “Jesus Obrero” eskola profesionaleko egoitzetan aurkitu ziren (21). Elizgizon honek langileen alde borrokatzen zuen, hauen egoera soziala elizaren ardura izan behar zela azpimarratuz. Elizak egoera sozial larriak ez bazituen kontuan hartzen, Jainkoaren aurrean bekatuan egongo zela pentsatzen zuen. Honela, kapitalismoaren eredia salatu eta honen aldaketaren alde egin zuten, Gasteizko industrializazioak sortutako giza desorekak eman

(18) Hogar Alavés Gasteizko Elizbarrutiko Idazkaritza Sozialaren gidaritzapean zegoen langileen erresidentzia zen. Adurtzako auzoan aurkitzen zen eta Carlos Abaitua Lazpita apaizak zuzentzen zuen. Erakunde honen printzipioak, helburuak eta funtzionamendua Aitor Gonzalez de Langarica Mendizabal eta Carlos Carnicero Herrero-ren artikuloak “La acción social de la iglesia durante el franquismo: el caso del Secretariado Social Diocesano de Vitoria” eta Alfredo Corres-en liburuak “Adurza 25 años de desarrollo comunitario 1960-1985” sakonago lantzen dute.

(19) Esmaltaciones San Ignacio-ko administrazio batzordea Araba probintziako lan delegaritzara 1958ko apirilaren 2an bidalitako gutuna. 2007ko abenduan, Carlos Abaitua Lazpitarekin izandako elkarriketa.

(20) Egoitza hau San Ignacio kalean aurkitzen zen. 2007ko abenduan, Carlos Abaitua Lazpitarekin izandako elkarriketa.

(21) Uriarte apaizak lanbide heziketako eskola (escuela de aprendices) zuzentzen zuen.

zion esperientzian oinarrituta. Gainera, bere ideiak eta jokabidea defendatzeko Espainiako metropolitarrak eginiko adierazpenak erabili zituen, honako hauek izanik: "...Gizarte batean langilea lan irabazietatik baztertuta izaten bada, eta mozkinak bakarrik kapitalak jasotzen baditu, gizarte hura ez dago kristautasunean oinarritua. Honek gizartea elizatik urruntzen du eta apostasia dakar".

Eliz katolikoaren barnean Uriarte eta Carlos Abaitua apaizen idearioa (22) ez zegoen isolatua eta Guillermo Rovirosak berrogeigarren hamarkadan H.O.A.C. erakundearen barnean bultzatu zuen antzekoa zen, Adierazpen Komunitaristaren ideiak jarraituz (López García, B., 1995; 2005, p. 98-104). Ideario honen praxia Jacques Maritain-en "Nouvelle Theologie" lanean azaltzen zen, gertakari "terrenalen edo lurkoiaren" autonomiaren aldeko kontzeptualizazioan oinarritzen zelarik. Eliza katolikoa aldi bateko arazo sozial eta politikoa ez arduratu behar zen, "hurrengo bizitzaz" kezkatu beharrean.

Apaiz hauek langileen aldarrikapenen alde borrokatzeko, indarkerian oinarritutako jokabideak baztertzen zituzten, Ghandiren irudia eta borroka kontutan hartuz; greba azken irtenbidea izango zen. Enpresa ezberdinetan minutu batzuetako lan geldialdiak langileen kexa bideratzeko era aproposa zela zioten. Arregui-Balzako langileek protesta mota hau martxan jarri zuten. Dena den, bildutako bitartekari sindikalak eta langileak pragmatikoagoak izan ziren eta aldarrikapenak legearen barruan egin nahi zituzten, beso makurreko (brazos caídos) metodoa jazartua izaten baitzen. Gutun edo idatzi informatiboak erabiltzeko konpromisoa hartu zuten, hauek industria ezberdinetako gerentziara eta sindikatu bertikaleko ordezkari probintzialera zuzenduak izango zirelarik.

Gutun eredu, beste alditan bezala, Uriarte apaizak idatzi zuen. Aldarrikapen nagusia langile guztientzat 15 pezetako soldata igoera zen, urtean gobernuak agindu zuen soldata igoera prezioek izan zuten bilakaera gorakorrekin ezerezean gelditu baitzen. Gutunaren bigarren puntua aztertuta Komunitarista idearioaren isla sumatzen zen, Gasteizko enpresen ihardura bikaina, produkzioa eta salmenten gorakadak, soldata igoeraren aldarrikapena zilegi bihurtzen zutela azpimarratzen baitzen, langileek ere egoera honetaz etekina atera behar zutelarik. Azkenengo puntuak giza eta lan harremanetan sakontzen zuten. Enpresako zuzendaritzak zuen altruismoak lantokiko giza harremanak baldintzatzen zituen, eskakizuna bete ezkeru lan harremanek erosoak izaten jarraituko zutela goraipatuz.

Eduardo Aguinacok, bitartekari sindikala eta Ajuria lantegiko langile ordezkariaren bozeramailea, idatzi honen ardurua jaso zuen. Igande gauean Gasteizko beste enpresetako bitartekari sindikalekin kontatua jarri zen eta hauen artean idatzia zabaldu zuen. Soldata igo-

(22) Bigarren dokumentu osagarrian pentsakera hau era sakonagoan azalduko dugu.

eraren eskariak legearen barruan egin behar zirela eta bitartekarien lana ezinbestekoa zela gogoratu zuen. Aldarrikapen gutun hoiek martxoaren 31an, astelehenen goizean Gasteizko enpresa ezberdinetan aurkeztuko ziren, sindikatu bertikalako ordezkariak probintzian kopia bat utzi ondoren.

Astelehena iritsi eta aldarrikapenak martxan jarri ziren. Goizeko hamabi eta erdietan hainbat lantegietako bitartekari sindikalek, hogeita hamar bat inguru, sindikatu bertikalaren ordezkari probintzialari idatzia aurkeztu zioten. Gutun eta kopia hauek kasu batzuetan enpresen barnean mekanografiatuak izan ziren eta langile ugarien atxikipen izenpetua jaso zuten. Egoeraren larritasuna ikusirik, sindikatuko agintari probintziala bitartekari sindikalekin bildu zen. Eztabaidatu zen lehenengo gauza enpresariei erantzuna plazaratzeko ematen zitzaiezen epea izan zen. Hau 48 ordukoa zen eta sindikatu buruaren ustetan mehatxu adierazpen garbia ezkututzen zuen, negoziaketa baldintzatzen zuelarik. Mota honetako eskakizun mehatxagarriak ezin ziren onartu, sindikatu bertikalako printzipioen kontra baitzihoazen. Langileek 48 orduko epea ultimatum-a ez zela adierazi zuten. Sindikatu buruak denbora irabazteko xedea zuen, langileen artean kezkak areagotu zitezten.

Konfiantzako bitartekari sindikalez baliatuta, sindikatu bertikalaren kideen ardura, helburuak, eta jarraitu behar zituzten prozedurak azaldu zituen, eskaera hauen desegokitasuna agerian utziz. Erakunde sindikaletik at burutzen ziren eztabaida, aldarrikapen eta hitzarmen guztiak antzuak eta legalitatekin kanpo zeudela gogoratu zuen, etsai politikoek erabiltzen zuten azpizokoa izanez. Pentsaera honekin langile eskaeren zilegitasuna eza bilatzen zuen, aldarrikapen ekonomikoak politikoak izango balira bezala ustiatzean. Baita ere gobernua aurrera eramaten ari zen Hitzarmen Kolektibo Sindikalen legeaz hitz egin zien, langileen aldarrikapenak eta negoziaketak zuzentzeko tresna egokia izango zela azpimarratuz. Gasteizko langileen eskaerak legeari aurreratu zirela adierazi zuen, eta lege honetan konfiantza izatea eskatu zien. Sindikatuko ordezkari probintzialak langileak bereganatzeko egin zuen ahalegina ez zuen aparteko emaitzarik lortu, oraindik bitartekari sindikal batzuk beraien desadostasuna plazaratzen baitzuten. Egoera honi aurre egiteko, sindikatu bertikalaren alde zeuden bitartekari sindikalak desoreka lanetan hasi ziren, langile aldarrikapenenganako deskonfiantza zabalduz. Greba ematekotan, langileen “ordezkari” bakoitzaren ardura kontutan hartuko zela esaten zen, errespasioaren mehatxua zabalduz.

Bitartean enpresa metalurgiko ezberdinetako bitartekari sindikalak gutunen bidez gerentziara zuzendu ziren soldata igoerak eskatzeko. Ajuria, Aranzabal, Areitio eta Bicicletas Iriondoko enpresariak, besteak beste, aldarrikapen hauen aurrean nola jokatu ez zekiten eta sindikatuko ordezkari probintzialari aholkua eskatu zioten. Astelehen arratsaldean bildu eta lan ordezkari probintzialarengana jo zuten soldata igoera eskariei irtenbidea bilatzeko. Honen ustetan bitartekari

sindikalekin biltzea arriskutsua zen, soldata igoerari buruz eztabaidatzean, langileek beti grebaren mehatxuarekin jolastuko baitzuten. Enpresariei aholkatu zien soldata igoera bertan behera uztea, langileen eskaerak legalitatera egokitu ez zirelako. Bitartekari sindikalek industria metalurgikoko langileen izenean eskaera kolektiboa egitean, instituzionalizatutako bideak alde batera utzi zituzten. Goizean sindikatuko ordezkari probintzialak langileen aurrean egin zuen bezala, enpresariei gomendatu zien Espainiako Gortetean laster aterako zen Hitzarmen Kolektibo Sindikalen legeari buruz langileak informatzea (23); hauen lan eta soldata aldarrikapenak bideratzeko marko juridikoa aproposa izango zela azpimarratu zuen, langileen artean bultzatzen ari ziren eskaera bideak egokiak ez zirela esanez.

Hurrengo egunean, apirilaren 1ean, sindikatu bertikaleko ordezkari probintziala bitartekari sindikalekin berriro bildu zen. Aurreko egunean burututako koertzio lanak bere emaitza lortu zuen, bitartekari sindikal guztiek bere lantegietan edozein geldialdi edo greba saiakera ekiditeko konpromisoa hartu baitzuten. Bazirudien lan mobilizazioak bertan behera utziko zirela. Cecilio Ortiz Solis, Aranzabaleko bitartekari sindikala, ez zettorren bat hartutako erabakiarekin eta sindikatu bertikaleko buruarekin bilera pribatu bat eduki zuen. Bertan estatu frankistaren politika soziala salatu zuen, langileen egoera sozialaz ez arduratzean eraginkortasun eza erakusten baitzuen. Sindikatu bertikalak langileentzako aldarrikapen tresna bezala balio ez zuela eta sindikatu indartsu baten alde borrokatuko zuela esan zuen, nahiz eta erakunde honetatik kanpo aritu (24).

Apirilaren 2an, bitartekari sindikalak proselitismo lanetan aritu ziren Gasteizko langilegoaren barnean zegoen urduritasuna eta eskakizunak lasaitzeko, eta greba saiakera bertan behera uzteko asmoz. Aldi berean, estatuaren koertsio lanak jarraitu zuen erakunde ezberdinen bitartez. Ordenamendu Sozialeko idazkari probintzialak eta bere ordezkoa Uriarte apaiza bisitatu zuten, langile mobilizazio edo aldarrikapenen arduraduna zela pentsatzen baitzuten. Apaizak langileen-gan izandako jarrera salatu zuten eta hark iradoki zituen lan mobilizazioak bertan behera uztea eta langileen artean lasaitzeko mezua zabaltzea agindu zitzaion. Uriarte elizgizona errepresioaren beldur zela, agindutako eran jokatu zuen. Apirilaren 2an, goizeko zortzietan Gasteizko gune industrialetan oso kezkatu eta arduratsu langileen gertu ikusia izan zen.

(23) Apirilaren 2an Areitioko gerentziak kontseilu hauek jarraitu zituen. Gutun baten bidez Faustino San Vicente eta beste 6 bitartekari sindikalak neurri hauetaz ohartarazi zituen.

(24) Cecilio Ortiz, Aranzabaleko ajustadorea, Solis legez kanpo zegoen alderdi komunistaren partaide izan zen eta beste kideekin batera Gasteizko talde klandestinoa osatzen zuen (Rivera Blanco, A., 2008).

Nahiz eta grebaren mehatxua desegin, langileen aldarrikapenek partzialki ospea lortu zuten, industria batzuk soldaten igoera onartu baitzuten. Probintziako lan ordezkariak honen aurrean eta soldaten gorakaden eskaerak beste industrietara zabaltzearen beldur, prentsan ohar bat plazaratu zuen, non lan egora edo baldintzen aldaketen bitartez –errendimendu beherakadak, lanuzteak edo grebaren mehatxua-lortutako soldaten igoerak zilegiak eta onartuak izango ez zirela azpimarratu zuen. Baita ere inolako justifikaziorik gabe lana lagatzen zuen edozein langile, kaleratua eta bere lan kontratua apurtuzat emango zela adierazi zuen. Apirilak 1ean eta 2an goizean probintziako lantegi guztiak era normalean aritu arren, agintariak oraindik grebaren beldur ziren, zurrumuruak gero eta ozenagoak baitziren. Honen arrazoietako bat, prentsan argitaratu zen ohar ofiziala izan zitekeen, Asturiasen emandako mobilizazioak Espainiako beste lurralde-etera zabaldu nahi zirela ohartarazi baitzuen.

Esamesek greba apirilaren 7an hasiko zela zioten, baina gertakariak aurreratu ziren. Apirilaren 2an, arratsaldeko lau eta erdietan Aranzabal lantegiko 179 langile lana bertan behera utzi zuten. Cecilio Ortiz Solís bitartekari sindikala mugimendua geldiarazten saiatu zen, greba orokorra bideratzeko momentu aproposa ez zelako. Probintziako agintarien koerzioa zela eta, greba orokorraren antolaketan prozesuak atzera egin zuen eta beste enpresetan lan etendurarako giroa ezkorra bilakatu zen. Bere lantegian lan uztea geldieztina bihurtu zenean, grebaren porrotaz jabetu zen, bakarrik baitzeuden. Gainera, geldialdia bultzatu zuten bitartekari sindikalen artean agintari frankistek leiala zen egile bat aurkitzen zen, Frankoren guardia pertsonaleko zerbitzupuan eta Urdin sailean ibilitakoa. Pertsonai hauek langile mugimenduaren erroetan murgiltzen ziren, salatari lanak egin eta mugimenduaren bultzatzaileak antzematen zituzten; langileen koherentsia edo batasuna zapuzten ahalegintzen ziren. Dena den, hurrengo egunean, ostegun santuko goizean, enpresa honetako beste langile talde batek lana laga zuen, guztira 235 langile greban egonez.

Areitioko langileek ere greba bultzatzeko ahaleginak egin zituzten, baina saiakera ez zen gorpuztu. Arabako sindikatu metalurgikoko buruaren lana, Areitio lantegiko teknikaria zena, erabakigarria izan zen, behin baino gehiagotan enpresa honetako langileen artean etsipena eta mehatxuak zabaltzen buru belarri aritu baitzen. Ildo berean, aste santuko opor egunetan (ostegun arratsaldean eta ostiralean) sindikatu bertikalak eta lan ordezkari probintzialak Gasteizko langileen arteko elkartasuna apurtzen saiatu ziren.

Apirilak 4ean, larunbatean, Gasteizko lantegietan giro berdina mantentzen zen. Aranzabaleko langileek greban jarraitzen zuten, baina hauen artean kezkek sumatzen hasi ziren. Enpresa honetako langile batzuk maisu edo kontramaestreekin harremanetan jarri ziren, hauek Aranzabaleko zuzendaritzaren aurrean beraien alde egin zezaten; larunbatean laneratzeko helburua zuten, baina hau jadanik ezinezkoa zen probintziako agintaritzak zibilak greban egondako langileen behin behineko kanporaketa agindu zuelako. Probintziako lan ordezkariak,

zigor hau lehenbailehen altxatzea iradoki zuen eta astelehenean lan kontratu berriak egiteko aukera eman zion enpresari. Berri hau larunbatean Aranzabaleko langileen artean zabaldu eta prentsan argitaratu zen. Gasteizen greba jarraitu zuten langileen egoera normalizatu nahi zuen, beste lantegietako langileen elkertasuna inolako aukerarik ez izateko eta zurrumurruek astelehenerako adierazten zuten greba orokorraren mehatxua bertan behera uzteko (25).

Bitartean egun hauetan agintari gubernatiboko kideek lan mugimenduaren bultzatzaileak ikertu zituzten, hainbat atxiloketa eta galdeketa prozesuak martxan jarri. Besteen artean Cecilio Ortiz Solis bahitua izan zen, eta honen haritik elizgizonek bultzatutako mugimendu soziala ikertua. Astelehenera begira, grebaren mehatxua posiblea izan zitekeen oraindik, eta hau ekiditeko nahian mugimendu honetako buruak jazartuak izan ziren.

Astelehen goizean Aranzabaleko langile talde handi bat laneratu zen. Oraindik 89 langile ez ziren lanera aurkeztu. Hauetaz aparte zortzi langile enpresatik kaleratuak izan ziren, nahiz eta profesionalki oso trebeak izan, greban izandako arduragatik (26). Aldi berean, Aranzabaleko greba mugimendua itzaltzen ari zen momentuan, Gasteizen beste greba mugimendu bat piztu zen. Maiatzaren 7an, astelehena, goizeko zortzi eta erdietan Echaurreko 45 langile lanpostua laga zuten - industria honen plantila 125 langileetaz osatua zegoen-. Aurreko astean enpresa honetako langileek aldarrikapenak plazaratu zituzten, baina beste enpresetan ez bezala, era ozenean jakinarazi zuten. Sindikatu bertikala enpresa honetan ematen ari ziren mugimenduez eta grebaren mehatxuaz informatua zegoen uneoro, bertako langile bat salatari lanetan aritzen baitzen. Honen arabera egoera larria zen eta lan geldialdi saiakera oso aurreratua zegoen. Lan uztearen bultzatzailea hauteskundeetan bitartekaritza sindikala lortu eta ukatu egin zitzaion langile bat izan zen (27). Honek errepresioaren beldur, mobilizazioen gidaritza eta ardura beste lankide batean delegatu zuen, goizeko txanda hasi eta ordu erdi igarota kalera atera zirelarik.

Astelehen arratsaldean lan geldialdiak Areitio enpresara zabaldu ziren. Jadanik goizean langile batzuk lanpostua laga zuten, baina lanuztea ez zen nagusitu. Arratsaldean greba orokortzeko saiakera

(25) Sindikatu bertikaleko ordezkariak eta probintziako lan ordezkariak landutako txostenetan datak ez datoz bat. Lan ordezkariak apirilak 7 astelehena dela dio; berriz sindikatu bertikalaren iritziz astelehena apirilak 6 da.

(26) Jose Luis Lpz. Blanco, Pedro Serra Barquero, Jesus Martinez Oyarguren, Amador Galdos Perez de Nancleres, Francisco Galdos Perez de Nancleres, Jose Larrimbe Polancos, Justino Roberto Rodriguez eta Roman Gonzalez Garcia. Denak lehen eta bigarren mailako ofizialak ziren. Probintziako sindikatu bertikaleko ordezkariak egindako informean hauetako inork bitartekari sindikala ez zela goraiatu zen, mobilizazioetan erakunde honek inolako inplikaziorik izan ez zuela azpimarratzeko.

(27) Bitartekari sindikalen izaera antidemokratikoa azpimarratzen da berriro, langile honek erregimen franquistari desleial izategaitik ordezkarietatik baztertua izan baitzen.

emango zen. Lanuztea bostak eta laurdenerako antolatuta zegoen eta txalo bat entzun ostean langileek lana bertan behera utzi beharko zuten. Enpresako bitartekari sindikal bat honetaz jabetzean, Metaleko sindikatu buruari -enpresa honetako teknikaria- grebaren plangintza salatu zion. Teknikariak probintziako sindikatu bertikalaren ordezkari nagusia jakinean jarri zuen. Greba saiakera ekiditeko arratsaldeko lan ordua hasi bezain laster, sindikatu bertikalako bi pertsonak lanteregiko sail ezberdinak arakatu eta zaindu zituzten. Hau gutxi ez balitz, Ordenazio sozialeko idazkaria probintziala eta idazkari ordeak Areitiora bertaratu eta langileak mehatxatu zituzten. Sindikatu bertikalako informeen arabera Areitioko greba oso arriskutsua izan zitekeen, bertako bitartekari sindikal bat elizgizonei eta hauen mugimendu sozialari oso lotua baitzegoen eta grebari justifikapen moralak eman diezaiokeen. Gainera talde honen inplikazioa kontutan izanda, greba mugimenduak Gasteizko beste industrietara zabaltzeko erraztasuna zuen.

Koerzio instituzionalak Areitioko geldialdia ezerezean utzi zuen. Grebaren giroa hozten hasia zen, astelehen arratsaldean Aranzabaleko beste langile talde bat lanera bueltatu baitzen; oraindik industria honetako 22 langile laneratu gabe jarraitzen zuten. Bestalde, Echaurreko langileek greba orokorreko entseguaren porrotaz jabetzean, lanera bueltatzeko asmoa azaldu zuten. Maiatzak 8ko arratsaldean agintari zibilak hauen onarpena baimendu zuen, Gasteizko langile mobilizazioei amaiera jarritz.

Nahiz eta langile mobilizazio hauek kasu batzuetan greba orokorrean ez bilakatu, garrantzi handia dute Espainiako langilego mugimenduaren bilakaeran, historiografia tradizionalak arreta jarri ez duen arren. Greba saiakera hauek erakunde sindikal bertikalaren zilegitasuna kolokan jarri zuten. Sindikatu bertikalako ordezkari probintzialak zioen bezala, aldarrikapenak bultzatzen zituzten langileek bereganatzen saiatu behar ziren, antolamendu ofizialaren barnean parte hartzeko. Erakartze hau sindikatu bertikalak langileen artean zuen sinesgarritasun eta konfiantza ezaren adierazle zen, eta zilegitasuna eskuratzeko neurri aproposa izan zitekeen (Balfour, S., 1994); gainera, barneratze honi esker momentu oro jakin zezaketen zeintzuk ziren langileen eskaerak eta noraino onartu zitezkeen, greba eta langile mobilizazioak ustiatzeko erraztasun handiagoa izanez. Bestalde, ez zen komeni aldarrikapen bultzatzaileen inplikazio sakona sindikatu bertikalaren barnean, aldarrikapenak ez betetzean erakunde honi porrota leporatu baitzezaketen. Sindikatu bertikala erdibidean gelditu behar zen (28). Erdibide honek langileraren kontrola bakarrik zekarren, eta langileak honetaz laster jabetu ziren.

5. ONDORIOAK

Urte hauetako gertakarietan sindikatu bertikalaren izaera errepresioa agerian gelditu zen. Langileen artean kontrola eta diziplina zabaltzeko tresna burokratikoan bilakatu zen. Agintaritzaren sindikalak enpresa ezberdinetako bitartekaritza sindikalerako hauteskundetan, hautagaien artean kontrol eta ikerketa zorrotzak bultzatzen zituen, langile ordezkariaren erregimenari fidela izateko. Hauteskunde hauetan erakunde honen kutxu antidemokratikoaren isla sumatu zitekeen, langileek hautagaia erabaki arren autoritateen iritzia azken hitza baitzuen. Probintziako sindikatu bertikalako ordezkari gorenak 1958ko langile mobilizazioez egintako memorian bere kontrol lanaren justifikapena plazaratu zuen, bitartekari sindikalek behin eta berriz bere erakundearen alde borrokatu zutela azpimarratuz.

Lan mobilizazio hauek sindikatu ofizialak langileen eskubide eta interesak defendatzen ez zituela agerian utzi zuten. Sindikatu bertikala ez zen librea eta gobernu frankistaren interesak defendatzen zituen, honen agindupean egonez. 1951, 1956 eta 1958ko Gasteizko langile mobilizazioek, probintziako agintaritzaren ezberdinen gogoetek oneoro azpimarratu zuten bezala, beste aldarrikapenen artean erakunde honen funtzionamendua salatzen zuten. Sindikatu bertikalaren erakundeak eta bere buruek langileen ordezkariaren era okerrean betetzen zuten. Gasteizko langileek bere interesak defendatzeko bi bide osagarri jarraitu zituzten.

Hasiera batean, 1951ko grebetan eragile ezberdinen parte hartzea nagusi izan zen. 1951ko greba orokorraren prestaketan EAJ eta HOAC kideen partaidetza garrantzitsua izan zen, nahiz eta bigarren taldearen lana erabakigarria izan (De Pablo, S., 1991; Rivera, A., 2003). Mobilizazio hauek instituzionalizatutako bideak ez zituzten erabili, grebaren bitartez langileen ezin egona plazaratu zutelarik.

Bestetik “entrismoaren” praktikak ditugu. Lantegiko hauteskunde sindikalen bitartez, sindikatu bertikalaren aurkakoak ziren langileak, bitartekaritza sindikalean barneratu ziren langileen eskubideak hobeto defendatzeko. Ekimen hauek 1956 eta 1958ko mobilizazioetan era argian azaldu ziren. Gasteizko HOAC elkarte katolikoaren kideek taktika hau jarraitu, eta 1958 greban ikusi dezakegu nola hainbat lantegietako ordezkariak sindikala lortu zuten, bitartekari sindikal karguak eskuratuz. Bide honetan, sindikatu bertikalako ordezkari probintzialaren salaketa oso argia izan zen:

“...HOAC erakundeko partaideak aurrera eramandako proselitismo eta propaganda lanak garrantzitsuak izan dira (Gasteizko) enpresen barnean bitartekari sindikalen ordezkariaren jabetzeko asmoz. Hau lortuta, ulertu daiteke mobilizazio honetan parte hartu duten bitartekari sindikalak erakunde sindikal ofizialetik (Sindikatu bertikala) at biltzea eta greba saiakera prestatzea...”

Bitartekaritza sindikalean barneratu arren, pertsonai hauen aldarrikapenek eragin murrizta zuten. Erakunde bertikalaren baliagarritasuna eta legitimitatea zalantzan jartzen zen berriro ere. Greba hauen bitartez langile ordezkaritza ofizialaren sinesgarritasuna (sindikatu bertikala) kolokan gelditu zen. Langileen konfiantza eskuratzeko, Arabako agintari ezberdinek Hitzarmen Kolektibo Sindikalen legearen alde apustu egin zuten. Langile mobilizazio hauek lege honen sor-kuntza baldintzatu zuten, beraien aldarrikapenak plazaratzeko gune erreal bat behar baitzuten. Gainera, hasiera batean, agintaritzak lege berri hau begi onez ikusten zuen, negoziaketak kasu askotan enpresa edo sail produktibo bakoitzaren barnean aurrera eramango baitziren, langileen gatazkak era isolatuan ustiatuz; printzipioz Hitzarmen Kolektibo Sindikalen legearen bitartez langile mobilizazioak orokortzeko arriskua ekiditen zen (Balfour, S., 1994).

Gasteizko langile mobilizazio hauetan elizgizonen protagonismoa garrantzitsua izan zen. Jadanik 1950 eta 1951an Gasteizko elizaren sektore batek langile munduari buruz eta hauen egoeraz hainbat hitzaldi antolatu zituen. Adierazgarrienak 1950ean Mylembroech apaiza, Belgikako JOC (Gazte Langile Katolikoak) ordezkaria, eman zuena eta 1951ean Bueno Monreal gotzainak Gasteizko langileei buruz antolatutako hitzaldi saioak izan ziren. Baita ere apaiz batzuen etxeetan langileen bilkurak eman ziren, “konpromiso tenporalaren” seinale (Ugarte, J., 2006). 1951 eta 1958ko greba saiakeretan langileen aldeko konpromisoarekin jarraitu eta harago eraman zuten, diktadurako boterea eta legitimitatea zalantzan jarri baitzuten. Carlos Abaituaren esanetan “...agintaritza frankistak elizgizon talde horiek ez zituen gogoko, beraien heziketa erregimenaren doktrinarekin bat ez zetorrelako eta ahal zuten neurrian pertsonaren askatasuna bultzatzen zutelako...” (29). Ekintza hauetan HOAC erakunde katolikoaren parte hartzea goraiatu behar da.

Azkenik berrogei eta hamarreko hamarkadan Gasteizen gertatutako lan mobilizazioek langile mugimenduaren irudi tradizionala kolokan jarri dezakete. Langile mugimendua beti gizonezko unibertsoarekin harremandua izan da. Gasteizko gertakariak aurre iritzi tradizional hau zalantzan jartzen dute. Jada frankismo garaiko langile mugimenduaren beste ikerketa batzuk pentsaera hau ezeztu dute (Varo Moral, N., 2004; Diaz Sanchez, P., 2001; Babiano, J., 2007). Gasteizko mobilizazioak erakutsi digutenez, emakumeek gizonen mailako aldarrikapen eta konpromesua hartu zuten. Emakumeek lan egiten zuten enpresa anitz greban murgildu ziren eta batzuetan, greba azkenengo ondorioetaraino eraman zuten.

1951ko langile mobilizazioetan “Hijos de Orbea”, “Pirotecnia Lecea” eta “Gran Fábrica de Tapices”, kartutxo, suziri eta oihal indus-

(29) 2007ko abenduan, Carlos Abaitua Lazpitarekin izandako elkarrizketa.

triebek, besteak beste, lanuzte orokorra jasan zuten eta arrazoi honengatik itxiak izan ziren. Lantegi hauen pertsonalaren gehiengoa emakumez osatua zegoen (30).

1956ean Areitio eta Industrias Arrieta enpresa metalurgikoek lan geldialdiak jasan zituzten (31). Análisi kuantitatibo batean emakumeen parte hartzea garrantzitsua izan zen. Arrietako emakume langileen ehuneko 95-a grebara atxikitu zen; gizon langileen arten ehuneko 76ak lana utzi zuen. Areitio berriz, emakume langileen ehuneko 88ak lana laga zuen; gizon langileen artean ehuneko 65ak greba jarraitu zuen. 1958ko langile mobilizazioetan Areitioko emakume langileek berriro parte hartu zuten

Autoritateen adierazpenek emakume langileen mobilizazioak baieztatu zituzten. Probintziako lan ordezkariak grebei buruz egin zituen txosten ezberdinetan bai gizon bai emakumeen parte hartzea azpimarratu zuen, azken hauei arreta gehiago jarritz, arriskutsuak bezala ikusten baitzituen. Emakumearen protagonismoak langile mobilizazioetan hausnarketa sakonagoa behar du, langile mugimendua osotasunean ulertua izateko. Hemen azaldutako gertakari puntual eta deskriptiboak, non emakumeek era aktiboan parte hartu egin zuten, ikerketarako bide berriak ireki beharko ditu.

5.1 Dokumentu osagarriak (II)

1958ko apirilaren 18an, Laudelino León, probintziako lan ordezkariak, Espainiako lan ministroari bidalitako informean, Gasteizko elizgizonen pentsamendu, jokaera eta aldarrikapenak honako puntuetan laburbildu zituen.

- a) Espainiar estatuko antolamendu sindikala ez da askea. Gobernuak zuzentzen du eta erakunde honi leial da.
- b) Greba zilegi da beste biderik ez badago justizia soziala lortzeko.
- c) Enpresetako mozkinak langileei ere dagozkie; ez dira bakarrik patronala aberasteko.
- d) Morala zuzenbidearen gainetik dago. Moralaren babesle egokiak elizgizonak dira.
- e) Justizia sozial eta moralaren defentsan hainbat atsekabe pairatzeko prest gaude.
- f) Zortzi ordu bakarrik lan egin behar dituzu erritmo normalean, horiekin soldata egokia lortu behar duzularik zu eta zure familia mantentzeko.
- g) Emakumearen lana naturaren aurka doa.

(30) Arabako Agiritegi Historiko Probintziala (AAHP), OSE (Organización Sindical Española) saila, Ekoizpen Industrialeko Estadística, 459 eta 460 kutxa.

(31) Areitioak kremailek egiten zituen eta Industrias Arrieta metalen enbutzio eta estanzazioan espezializatu zen. Industria hauetako langileen gehiengoa emakumeak ziren.

- BABIANO MORA, J., *Del hogar a la huelga. Trabajo, género y movimiento obrero durante el franquismo*, Madrid, Libros de la Catarata, 2007.
- BABIANO MORA, J., *Emigrantes, cronómetros y huelgas. Un estudio sobre el trabajo y los trabajadores durante el franquismo, Madrid 1951-1977*, Madrid, Siglo XXI, 1995.
- BALFOUR, S., *La dictadura, los trabajadores y la ciudad. El movimiento obrero en el área metropolitana de Barcelona (1939-1988)*, Valencia, Edicions Alfons El Magnanim, 1994.
- CARNICERO HERREROS, C., *La ciudad donde nunca pasa nada. Vitoria 3 de marzo de 1976*, Vitoria-Gasteiz, Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2007
- CORRES, A., *Adurza 25 años de desarrollo comunitario 1960-1985*, Vitoria, Centro Social Adurza, 1986.
- DE PABLO, S., *El nacionalismo vasco en la posguerra. Alava, 1939-1955*, Bilbao, Fundación Sabino Arana, 1991.
- DÍAZ SÁNCHEZ, P., *El trabajo de las mujeres en el textil madrileño. Racionalización industrial y experiencias de género (1959-1986)*, Málaga, Atenea, 2001.
- ESK, *Vitoria-Gasteiz. 25 años del 3 de marzo ¡No olvidamos!*, ESK, 2001
- GONZÁLEZ DE LANGARICA MENDIZABAL, A. eta CARNICERO HERREROS, C., “*La acción social de la iglesia durante el franquismo: el caso del Secretariado Social Diocesano de Vitoria*”, VIII. Congreso de la Asociación de Historia Contemporánea, Vitoria-Gasteiz, 2006.
- GONZÁLEZ DE LANGARICA MENDIZABAL, A., *La ciudad revolucionada. Industrialización, inmigración, Urbanización (Vitoria 1946-1965)*, Vitoria, Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, 2007.
- GUINDAL, M. Y GIMÉNEZ, J.H., *El libro negro de Vitoria*, Madrid, Editorial Contracensura, 1976.
- LLIBERT, F. et al, *Las huelgas contra Franco (1939-1956)*, Barcelona, Editorial Planeta, 1978.
- LÓPEZ DE JUAN ABAD, J.M. et al, *Dinámica socio-urbana de la capital. Vitoria 1950-1964*, Vitoria, Caja de Ahorros Municipal de Vitoria, 1965.
- LÓPEZ GARCÍA, B., *Aproximación a la Historia de la H.O.A.C. (1946-1981)*, Madrid, Ediciones H.O.A.C., 1995.
- LÓPEZ GARCÍA, B., *Obreros cristianos en Europa. Relaciones Internacionales de la HOAC (1946-1975)*, Murcia, Universidad de Murcia Servicio de Publicaciones, 2005.

- MOLINERO, C. E YSAS, P., *Productores disciplinados y minorías subversivas. Clase obrera y conflictividad laboral en la España franquista*, Madrid, Siglo XXI de España, 1998.
- PÉREZ PÉREZ, J.A., *Los años del acero. Las transformaciones del mundo laboral en el área industrial del Gran Bilbao (1958-1977). Trabajadores, convenios, conflictos*, Madrid, Editorial Biblioteca Nueva, 2001.
- RIVERA BLANCO, A. (dir.), *Historia de Alava*, Vitoria-Gasteiz, Editorial Nerea, 2003.
- RIVERA BLANCO, A., *La ciudad levítica. Continuidad y cambio en una ciudad del interior (Vitoria, 1876-1936)*, Vitoria, Diputación Foral de Alava, 1992.
- RIVERA BLANCO, A., *La utopía futura. Las izquierdas en Álava*, Vitoria, Ikusager Ediciones, 2008.
- UGARTE, J., “*La posguerra: Exaltación político-religiosa y hambre*”, VVAA, *Ciudadanía y memoria de libertad*, Vitoria, Ciudadanía y Libertad, 2006.
- VARO MORAL, N., *La conflictividad laboral femenina durante el franquismo en la provincia de Barcelona*, Madrid, Fundación 1º de Mayo, 2004.